

## PINTURA

**Santa Ana eta Ama Birjina haurra**

Santa Ana eta Ama Birjina haurraren pintura hau XVII. mendearen lehen erdialdekoa eta flandestar jatorrikoa da, ustez. Santa Ana kaperan egon zen. Kaperera hori, hasieran, Esquível eta Ribas familiarena izan zen, eta Legardako markesena gero. Dena dela, markoaren gaineko frontoi zatituan, Garibay-Lazarraga familiaren armarria dago.

Konposizioaren erdian, Santa Ana ageri da. Adineko emakume bat da, tunika eta mantu batez jantzia. Besoetan, berari begira, Ama Birjina haurra darama. Uso batek –Espiritu Santuaren irudikapena– argitzen ditu biak, eta Jainko Aitak benedikatzen. Zeru arraildura apoteosiko horren barruan, aingeru musikariak eta kantariak ageri dira, margolaneko protagonisten inguruan. Santa Anaren oinetan, arrosak eta liliak –Ama Birjinaren ikurrak– dituen saski bat dago. Koadroak marko galloidun bat dauka, garai berekoa, baina aurrerago rokoko estiloko hegialak gehitu zitzaizkion alboetan.

Arabako Foru Aldundiaren Zaharberrikuntza Zerbitzuak duela gutxi zaharberritu du pieza hau. Hori dela-eta, badakigu obrak zenbait esku-hartze izan dituela denboran zehar: bitan, euskarria moldatzeko; beste behin, Santa Anaren aurpegian eta jantzietan aldaketak egiteko.



*Egilea: Anonimoa*

*Data: XVII. mendearen lehen erdialdea*

*Teknika: Olioa mihisean*

*Neurriak: 204 x 167 cm*

*Kokapena: Santa Maria Katedrala (Vitoria-Gasteiz)*



### Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

AZCÁRATE RISTORI, José M.<sup>a</sup> de. "Catedral de Santa María (catedral Vieja)". En: PORTILLA VITORIA, Micaela J. et al. *Catálogo Monumental Diócesis de Vitoria: Ciudad de Vitoria*. Vitoria-Gasteiz: Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal, tomo III, 1968, p. 143.



## Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García  
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava  
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



[arte.catedralvitoria.eus](http://arte.catedralvitoria.eus)

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak  
Tel. 945 255135  
[www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus)

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3  
01001 Vitoria-Gasteiz